

EAE-KO JAIOBERRIEN SORTZETIKO GAIXOTASUNEN BAHEKETA EGITEKO PROGRAMA

2020KO MEMORIA

**JAIOPERRIETAN SORTZETIKO GAIXOTASUNEN BAHEKETA EGITEKO AHOLKU
BATZORDEA**

Batzordeburua: Juanjo Aurrekoetxea jauna

Idazkaria: Leire Gil Majuelo andrea /Nerea Ferrero andrea

Batzordekideak:

Jaioberrien Baheketa eta Hipoakusia Programaren koordinatzaileak

Aitziber Perez andrea

Miguel Angel Cortajarena jauna

Ana Aguirre andrea.

Idoya Martinez andrea

Jose Antonio Municio jauna

Euskal Herriko Pediatria Elkartearen ordezkariak

Ignacio Díez López jauna

Ginekologia eta Obstetriziarako Euskal Erakundearen ordezkarietan

Mercedes Fraca Padilla andrea

Osakidetza Osasun-Laguntzako Zuzendaritzaren ordezkariak

Enrique Peiro Callizo jauna

Adelina Perez andrea

Osasun Sailaren ordezkariak

Mercedes Espada Sáez Torre andrea

Txema Arteagoitia jauna

EAE-KO AMAETXE PUBLIKO ETA PRIBATUEN ZERRENDA

Ospitale publikoak: Txagorritxu, Basurtu, Gurutzeta, Donostia, Debagoiena, Zumarraga, Mendaro

Ospitale pribatuak: Quirón, Pilareko Ama Birjina Osasun Zentroa, Poliklinika Gipuzkoa, IMQ Zorrotzaurre eta San José klinika.

SARRERA

Txosten honetan, 2020an EAEko Jaioberrien Sortzetiko Gaixotasunen Baheketa Programaren esparruan gauzatutako jarduerak laburbiltzen dira (Metabolopatia eta Hipoakuasia Programa).

Halaber, datu soziosanitario interesgarriak ematen dira gure autonomia-erkidegoko ama-umeen egoera orokorraren ikuspegia zein den jakiteko. Informazio hori guztia programaren bidez kudeatzen den Jaioberrien Erregistro Ofizialetik eskuratu da.

Amaitzeko, Programaren berezko kalitate-adierazleak ere eskaintzen dira, eraginkorra den balioesteko.

Kalkulatzen da EAEn jaiotako haurtxoen % 100 hartzen dituela Programak.

Emaitza biokimikoak azkar lortu behar direla aintzat hartuta –behar izanez gero tratamenduari hasiera emateko–, lortutako erantzun-denborek adierazten dute era honetako programetan normalean izaten dena baino askoz ere arinago lortu direla emaitzak, eta, horrenbestez, antolaketa-diseinua baliozkoa dela erakusten digu.

Gaur egun, jaioberrietan 12 gaixotasunen behaketa egiten da: «Sortzetiko hipotiroidismoa, fenilzetonuria, kate ertaineko azil CoA deshidrogenasaren eskasia (MCAD), fibrosi kistikoa, zelula faltziformeen anemia, I. motako azidemia glutarikoa, kate luzeko azil CoA deshidrogenasaren eskasia, astigar-jarabearen usaina duen gernu-gaixotasuna, azidemia isobalerikoa, homozistinuria, biotinidasa eta hipoakuasia».

2016an, Nafarroan eta Kantabrian jaiotako haurrak sartu genituen Jaioberrien Baheketa Programan; hortaz, Osasun Sistema Nazionalaren oinarrizko zerbitzu-eskaintzaren 7 gaixotasunen baheketa egin zen (aurrerago adierazten dira).

2017an, Entzumen-galera sartu zen Jaioberrien Sortzetiko Gaixotasunen Baheketa Programan, eta jaioberrien datuak jaso ziren, Osasun Sailaren Erregistroan.

2014ko martxoaren 20an, "Osasun Sistema Nazionaleko jaioberrien baheketa egiteko populazio-programaren informazio-sistemaren" oinarrizko gutxieneko datuak adostu ziren, Osasun Sistema Nazionalean jaioberrien baheketa egiteko populazio-programaren informazio-sistema garatzeko Osasun Publikoaren Batzordeko lantaldeak proposatuta (talde hori autonomia-erkidegoetako ordezkariak osatzen dute–tartean EAEkoek–, eta Osasun Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak koordinatzen du).

2014ko azaroaren 6an, urriaren 31ko SSI/2065/2014 Agindua argitaratu zen BOEn, zeinaren bidez aldatzen baitira irailaren 15eko 1030/2006 Errege Dekretuaren I., II. eta III. eranskinak (1030/2006 Errege Dekretua, Osasun Sistema Nazionalako zerbitzu-eskaintza komuna eta hura eguneratzeko prozedura ezartzen dituen).

Jaioberrien baheketaren kasuan, bereziki nabarmentzen da garrantzitsua dela, alde batetik, informazio-sistema bat izatea, autonomietan eta Estatuan populazio-programa horiei behar bezalako jarraipena eta ebaluazioa egin ahal izateko, eta, bestetik, baita kalitatea kudeatzeko sistema bat ere, autonomia erkidego guztietan baheketa-prozesuak modu homogeneoan egiteko.

3.3.1. atalean jaso dira zer gaixotasun dauden sartuta Osasun Sistema Nazionalaren oinarrizko zerbitzu-eskaintzaren barruko Jaioberrien Baheketarako Populazio Programan: sortzetiko hipotiroidismoa, fenilzetonuria, fibrosi kistikoa, kate ertaineko azil CoA deshidrogenasaren eskasia, kate luzeko azil CoA deshidrogenasaren eskasia, azidemia glutarikoa eta zelula faltziformeen anemia.

2015eko otsailean, Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioak Jaioberrien Baheketa Programaren Informazio Sistema jarri zuen abian (SICN).

2017ko azaroan, Osasun Publikoaren Batzordearen barruan “Populazioaren baheketa buruzko txostena” eratu zen, eta SICNren lantaldea horren barruan txertatu zen.

2019ko maiatzean, Jaioberrietan biotinidasa-eskasiaren Baheketa jarri zen abian.

EAEko Jaioberrien Baheketa Programa *hautatu* zuen 2013ko deialdian Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasunerako Ministerioak koordinatzen duen Gaixotasun Arraroen Estrategiaren Batzorde Instituzionalak, gaixotasun arraroen jardunbide egokiak identifikatzeko, banatzeko eta hedatzeko, gainerako autonomia erkidegoek jarraitu beharreko eredu gisa.


2020an, egiaztagiria berriz ebaluatzea lortu du Kimika Klinikoko Unitateak UNE-EN ISO 15189 arauaren menpe: “Laborategi klinikoak: kalitateari eta kompetentziari buruzko berariazko betekizunak”, Jaioberrien Baheketarako programan sartutako hamaika gaixotasun horietan inplikaturako markatzaile guztietarako.

2020ko ekainean, jaioberrientzako aplikazio informatiko berria ezarri da.

Jarduera eta lorpen horiek guztiak EAEko Jaioberrien Baheketarako Programan diharduten oinarrizko eremuetako eta Osasun Publikoaren Zuzendaritzako profesional-taldearen emaitza dira.

Gainera, Osasun Saileko Zerbitzu Zuzendaritzako teknikarien laguntza eduki dugu arazo informatikoak konpontzeko, eta erkidego honetan jaiotzak gertatzen diren zentro pribatu guztien laguntza ere bai. Balio beza honek guztiei eskerrak emateko.

PROGRAMAREN EGITURA




JAIOPERRIEN SORTZETIKO GAIOTASUNAK BAHETZEKO PROGRAMA (Metabolopatiak)

1. JAIOPERRIAK

1.1. JAIOTZAK

2020an, 14.994 haur jaio ziren guztira EAEn. 1. irudian agertzen denez, Bizkaian 7.510 haur jaio dira (% 50,09); Gipuzkoan, 5.352 haur (% 35,69), eta Araban, 2.132 (% 14,22).

1. irudia. EAEn jaiotako haurrak, lurralde historikoen arabera.



2019an baino 760 haur gutxiago jaio dira

1. taula. EAEn jaiotako haurren kopuruaren bilakaera, lurralde historikoen arabera. 2018, 2019 eta 2020

LURRALDEAK	2018	2019	2020
Araba	2.425	2.318	2.132
Bizkaia	8.148	7.977	7.510
Gipuzkoa	5.844	5.459	5.352
EAE	16.417	15.754	14.994

1.2.JAIOTZA-ZENTROAK

EAEn izandako jaiotzen banaketa, amaetxeen arabera:

ZENTROA		Jaiotza-kop.	%
Ospitale publikoak	Txagorritxu	2.123	% 14,15
	Basurtu	2.183	% 14,55
	Gurutzeta	4.146	% 27,64
	Donostia	3.337	% 22,25
	Debagoiena	383	% 2,55
	Zumarraga	694	% 4,63
	Mendaro	495	% 3,30
	GUZTIRA	13.361	% 89,07
Klinika pribatuak		1.548	% 10,32
	Helbidea	85	% 0,57
	Beste erkidego bat	2	% 0,01
	Atzerria	5	% 0,03
Guztira		15.001	

Aurreko urteetako emaitzekin alderatuta, gora egin dute pixka bat zentro publikoen ehunekoek.

1.3.BAHEKETA EGINDA DUTEN 2020KO JAIOBERRIAK

2020an jaiotako 15.001 haurretatik 14.933ri egin zitzairen baheketa. Gainerako 68 haurretatik 63 hilik jaio ziren eta 5 bizirik. Haietako bat Txagorritxu Ospitalekoa da, eta jakinarazi ondorengo desadostasuna sinatu zuen; beste bat Gurutzetako Ospitalekoa da, eta jakinarazi ondorengo desadostasuna sinatu zuen hark ere; beste hirurak Donostiako Ospitalekoak dira: haietatik bik jakinarazi ondorengo desadostasuna sinatu zuten eta hirugarrenari beste autonomia-erkidego batean egin zioten baheketa.

1.4.ELIKADURA

2. taulan adierazi da 2020an jaiotako hurrek jasotako elikadura mota.

2. taula. Elikadura-motaren bilakaera (egonaldian). 2018., 2019. eta 2020. urteak.

Elikadura	2018	2019	2020
Naturala (amagandiko edoskitzea soilik)	% 72	% 72	% 69
Artifiziala	% 10	% 10	% 10
Biak (amagandiko edoskitze mistoa)	% 17	% 16	% 17
Beste batzuk / Daturik ez	% 1	% 2	% 4

Edoskitze naturalak behera egin du aurreko urteko datuen aldean, baina elikadura-mota nagusia izaten jarraitzen du.

1.5.PISUA

3. taula. Haurtxoen ehunekoak, jaioberri guztiak kontuan hartuta, jaiotzean zuten pisuaren arabera.

Pisua	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		GUZTIRA	
< 1.500 g	20	% 0,94	72	% 0,96	41	% 0,77	133	% 0,89
1.500-2.500 g	124	% 5,82	446	% 5,94	264	% 4,93	834	% 5,56
< 2.500 g guztira	144	% 6,75	518	% 6,90	305	% 5,69	967	% 6,45
≥ 2500 g	1.988	% 93,25	6.993	% 93,08	5.051	% 94,29	14.032	% 93,54
Daturik ez	-	-	2	% 0,03	-	-	2	% 0,01
Jaioberriak guztira	2.132		7.513		5.356		15.001	

1.6.HAURDUNALDI-ASTEAK

Erditzeen % 94,13 haurdunaldiko 37-42. asteetan izaten dira (4. taula).

Aurre-erditzearen indizea (AE < 37 aste) jaitsi egin da aurreko urtekoaren aldean.

4. taula. Jaiotza-ehunekoa, haurdunaldi-asteen arabera JEn test bidez aztertutakoa kontuan hartuta.

Asteak	Jaiotza-kop.	%
<28	52	% 0,35
28 - 32	132	% 0,88
33 - 36	679	% 4,53
<37 guztira	863	% 5,75
37 - 42	14.121	% 94,13
>42	2	% 0,01
Daturik ez	15	% 0,10
Guztira:	15.001	% 100,00

1.7. ERDITZE-MOTA

5. taula. Jaioberrien ehunekoa, jaioberria nola zetorren kontuan hartuta eta erditze motaren arabera.

Aurkezpena	Kopuru a	%	Mota	Sektore publikoa		Sektore pribatua	
				Kopuru a	%	Kopuru a	%
Buruz behera	14.329	% 95,52					
Hankaz behera	492	% 3,28	Baginala	11.428	% 88,14	1.196	% 80,32
Zeharkakoa	50	% 0,33	Abdominala	1.516	% 11,69	276	% 18,54
Bestelakoak	61	% 0,41	Daturik ez	22	% 0,17	17	% 1,14
Daturik ez	69	% 0,46	Guztira	12.966		1.489	
Guztira	15.001						

Sektore pribatuan sabel-bideko erditze gehiago izaten dira sektore publikoan baino (% 18,54 eta % 11,69 hurrenez hurren).

1.8. AMAREN ADINA


Jaiotza gehienak 30-34 urteko amen artean izan da (5.159 jaiotza, % 34,39); eta, haien ondoren, 35-39 urtekoen taldean (4.968 jaiotza, % 33,12). 20 urtetik beherako amen kopurua aurreko urtekoaren parekoa da (6. taula).

6. taula. EAEn jaiotako haurren proportzioa, amaren adinaren arabera.

Adina	Guztira	%
<=14	2	% 0,01
15	7	% 0,05
16	12	% 0,08
17	30	% 0,20
18	46	% 0,31
19	73	% 0,49
20-24	826	% 5,51
25-29	2.045	% 13,63
30-34	5.159	% 34,39
35-39	4.968	% 33,12
>= 40 urte	1.625	% 10,83
Daturik ez	208	% 1,39
GUZTIRA	15.001	

Irudia 2. irudia. Jaiotzak amaren adinaren arabera

%



Adina (urteak)

2. EGINDAKO JARDUERA ANALITIKOAK

2.1. TESTATUTAKO JAIOBERRIAK

2020an, bizirik jaiotako 14.933 haurtxoen laginak aztertu dira. Haietatik 14.926 EAeko zentroetan zein etxeetan jaiotako dira, eta 7 beste autonomia-erkidego batean edo atzerrian. Hau da Programaren oinarritzko eremuen araberrako jatorria:

7. taula. EAEn test bidez aztertutako jaioberriak.

Oinarritzko eremua	Kopurua
Araba	2.118
Basurtu	3.318
Gurutzeta	4.158
Gipuzkoa	5.339
Guztira	14.933

2.2. ZEHAZTAPEN ANALITIKOAK

181.791 zehaztapen analitiko egin dira laborategian, EAEn aurkitutako kasuen detekzioari eta jarraipenari dagozkienak (8. taula), eta 75.832 zehaztapen analitiko, 5.369 Nafarroari dagozkionak eta 4.110 Kantabriari.

8. taula. EAEn egindako zehaztapen analitikoen banaketa, hipotiroidismoa, hiperfenilalaninemia, fibrosi kistikoa, MCAD, ZFG, LCHAD, GA_1, MSUD, homozistinuria eta azidemia isobalerikoa detektatzeko eta horien jarraipena egiteko.

Zehaztapena	Kopurua
Fenilalanina paperean	14.951
Fibrosi kistikoaren test genetikoa (FKren mutazioak)	126
Tripsinogeno immunoerreaktiboa	15.279
Tripsinogenoa 21 egunera (TIR 2)	16
Tiroxina paperean	15.742
Tirotropina paperean	15.607
Hemoglobinen aldaerak	15.212
C5 Isobaleril karnitina	14.947
Metionina	14.970
3-hidroxi palmitoil karnitina	14.961
C5DC Glutaril karnitina	14.958
Hemoglobinak 5 hilabeterekin	2
Leuzina	14.952
C8	14.952
Biotinidasa	15.116
GUZTIRA	181.791

2.3.METODOAK

2.4.

Hauek dira zehaztaperen analitikoak egiteko eta horien balio diskriminatzaileak ateratzeko erabilitako metodoak.

	<u>Erabilitako metodoa</u>	<u>Eten-puntua</u>
Fenilalanina	Tandem erako masa-espektrometria	151.5 µmol/L
Tirosina	Tandem erako masa-espektrometria	178.6 µmol/L
TSH	Fluoreszentzia denbora atzeratuan	10 µU/mL
Tiroxina (T4) guztira	Fluoreszentzia denbora atzeratuan	6 µg/dL baino gutxiago edo 20 µg/dL baino gehiago
C8,C5,C5DC, Met, Leu, C16-OH	Tandem erako masa-espektrometria	0,5, 0,79, 0,37 µmol/L 42, 263, 0.07 µmol/L hurrenez hurren
Tripsinogenoa (TIR)	Fluoreszentzia denbora atzeratuan	65 ng/ml
FQ mutazioak	Kit Elucigene; 50 mutazio	
Zelula falziformeen gaixotasuna (ZFG)	Kromatografia likidoa	
Biotinidasa	Fluorimetria	0,5 pertzentila

2.5.BESTE LAGIN BAT ESKATZEA

Beste lagin bat eskatzeko atalean bereizketa hau egiten da:

2.5.1. Retesting indizea

Edozein arrazoirengatik, berriz eskatutako lagin-kopurua zein den adierazten du, inpregnazio txarragatik izan ezik.

Hiperfenilalaninemia

Pisua	Araba	Basurtu	Gurutzet a	Gipuzkoa	Kopurua	%
≥ 2500 g	-	1	-	1	2	
< 2500 g	-	-	-	-	0	
GUZTIR A	-	1	0	1	2	0,01

Sortzetiko hipotiroidismoa (TSH)

Pisua	Araba	Basurtu	Gurutzet a	Gipuzkoa	Kopurua	%
≥ 2500 g	3	11	5	13	32	
< 2500 g	-	-	1	-	1	
GUZTIR A	3	11	6	13	33	0,22

Sortzetiko hipotiroidismoa (T4 guztira)

Pisua	Araba	Basurtu	Gurutzet a	Gipuzkoa	Kopurua	%
≥ 2500 g	2	3	5	10	20	
< 2500 g	1	1	-	4	6	
GUZTIR A	3	4	5	14	26	0,17

Kate ertaineko AcilCoA deshidrogenasaren urritasuna (MCADD)

Pisua	Araba	Basurtu	Gurutzet a	Gipuzkoa	Kopurua	%
≥ 2500 g	1	1	2	3	7	
< 2500 g	-	-	1	-	1	
GUZTIR A	1	1	3	3	8	0,05

Homozistinuria

Pisua	Araba	Basurtu	Gurutzet a	Gipuzkoa	Kopurua	%
≥ 2500 g	-	1	-	-	1	
< 2500 g	-	-	-	-	-	
GUZTIR A	0	1	0	0	1	0,01

Azidemia isobalerikoa

Pisua	Araba	Basurtu	Gurutzet a	Gipuzkoa	Kopurua	%
≥ 2500 g	-	1	1	-	2	
< 2500 g	-	-	-	-	0	
GUZTIR A	0	1	1	0	2	0,01

1. motako azidemia glutarikoa (GA 1)

Pisua	Araba	Basurtu	Gurutzet a	Gipuzkoa	Kopurua	%
≥ 2500 g	1	-	2	2	5	
< 2500 g	-	-	-	-	-	
GUZTIR A	1	-	2	2	5	0,03

Astigar-jarabearen usaineko gernu-gaixotasuna

Pisua	Araba	Basurtu	Gurutzet a	Gipuzkoa	Kopurua	%
≥ 2500 g	-	-	-	-	0	
< 2500 g	-	-	-	-	0	
GUZTIR A	0	0	0	0	0	0,00

Kate luzeko Azil Co A deshidrogenasaren eskasia (LCHADD)

Pisua	Araba	Basurtu	Gurutzet a	Gipuzkoa	Kopurua	%
≥ 2500 g	1	1	-	-	2	
< 2500 g	-	-	-	-	0	
GUZTIR A	1	1	0	0	2	0,01

Fibrosi Kistikoa TIR 2 (TIR>100 ng/ml) eta test genetikoa = 0

Pisua	Araba	Basurtu	Gurutzet a	Gipuzkoa	Kopurua	%
≥ 2500 g	3	3	4	4	14	
< 2500 g	-	2	-	-	2	
GUZTIR A	3	5	4	4	16	0,11

Biotinidasa-eskasia probablea

Pisua	Araba	Basurtu	Gurutzeta	Gipuzkoa	Kopurua	%
≥ 2500 g	-	-	14	7	21	
< 2500 g	-	-	-	1	1	
GUZTIRA	0	0	14	8	22	0,15

2.5.2. Inpregnazio txarra

Inpregnazio txarratik guztira baztertutako lagin-kopurua % 0,15 izan da; behera egin du 2019ko proportzioarekiko (% 0,18).

Oinarrizko eremua	Pisua ≥ 2500 g	Pisua < 2500 g	Kopurua	%
Araba	-	-	0	% 0,00
Basurtu	-	-	7	% 0,05
Gurutzeta	-	-	0	% 0,00
Gipuzkoa	-	-	16	% 0,11
GUZTIRA	0	0	23	% 0,15

2.6.DETEKTATUTAKO KASUAK

9. taulan, detektatutako kasuak zerrendatzen dira, oinarritzko eremuaren arabera, kontuan hartuta hasierako behin betiko diagnostikoa.

9. taula. EAEn detektatutako gaixotasun endokrino-metabolikoen kopurua.

Gaixotasuna	Araba	Basurtu	Gurutzeta	Gipuzkoa	Kopurua guztira
Sortzetiko hipotiroidismo primario iraunkorra	1	2	-	1	4
Hipotiroidismo primario iragankorra	-	-	-	-	-
Hipertirotropinemia iragankorra	2	8	5	11	26
Hipotiroidinemia goiztiarra	-	2	1	1	4
Hipotiroidinemia iragankorra >1.500 g-ko pisua duena	1	2	-	2	5
Hipertiroxinemia iragankorra	1	1	2	4	8
Hiperfenilalaninemia iraunkorra	-	-	-	1	1
Hiperfenilalaninemia iraunkor onbera	-	-	-	-	-
Hiperfenilalaninemia iragankorra	-	-	-	-	-
MCADD	-	1	2	-	3
Azidemia glutarikoia	-	-	-	-	-
Fibrosi kistikoaren eramailea	5	2	3	2	12
Fibrosi kistiko klasikoa	1	-	-	-	1
Fibrosi kistiko negatiboa TIR >65 eta test genetikoa=0	28	18	35	32	113
Zelula faltziformeen gaixotasuna (FS, FSC, FC)	2	1	2	-	5
ZFGaren eramailea (fenotipoa FAS, FAC)	33	25	29	23	110
Biotinidasa baieztatzea	-	-	2	-	2
GUZTIRA	74	62	81	77	294

Fibrosi kistikoa

Testatuta	14.933
TIR >65 ng/ml 48 h	126 (% 0,86)
2 mutazio	1
1 mutazio	12
0 mutazio	113
TIR 2 (21 egun)	16 (% 0,11)
Izerdiaren testa	16 (% 0,11)

Detektatutako mutazioak

delF508	10
711+1G>T	1
D1152H	1
del I507	1
G542X	1
Guztira	14

2.7.ERANTZUN-DENBORAK BAHEKETAN

Hurrengo taulan, programaren erantzun-denborak ikusten dira bizi-egunetan, screeningeko etapa bakoitza kontuan hartuta; hau da, lagina hartzea, laborategian jasotzea eta emaitzak igortzea.

10. taula. Erantzun-denborak bizi-egunetan, oinarriko eremuaren arabera, mediana eta tarte-eskala gisa adierazita.

OINARRIZKO EREMUA	Lagina hartzea	Laborategian jasotzea	LEHEN EMAITZAK					
			TIR (ng/mL)	TSH (μU/mL)	T4 (μg/dl)	PHE, C8, MET, LEU, C16-OH, C5, C5DC (μmol/L)	FN	BTNDSA
BIZKAIA I (Basurtu)	2 (1-8)	4 (2-11)	5 (2-13)	4 (2-12)	5 (2-12)	4 (2-12)	5 (2-12)	4 (2-12)
BIZKAIA I (Klinika pribatuak)	2 (1-13)	5 (2-17)	6 (3-18)	6 (3-18)	6 (3-18)	6 (3-18)	6 (3-18)	6 (3-18)
BIZKAIA I etxean	3,5 (2-5)	4,5 (3-7)	5,5 (3-7)	5,5 (3-7)	5,5 (3-7)	5,5 (3-7)	5,5 (3-7)	5,5 (3-7)
BIZKAIA II (Gurutseta)	2 (2-8)	4 (2-12)	5 (4-13)	5 (4-13)	5 (4-13)	5 (4-13)	5 (4-14)	5 (3-13)
BIZKAIA II Etxean	2 (2-5)	4 (3-8)	6 (4-9)	6 (4-9)	6 (4-9)	6 (4-9)	6 (4-9)	6 (4-9)
BIZKAIA II beste autonomia erkidego bat	31 (28-33)	32 (29-34)	34 (32-35)	34 (32-35)	34 (32-35)	34 (32-35)	34 (32-35)	34 (32-35)
BIZKAIA II Atzerrian	42	43	46	46	46	46	46	46
GIPUZKOA (ospitale publikoak)	2 (2-10)	4 (3-12)	6 (4-15)	6 (4-14)	6 (4-14)	6 (4-14)	6 (4-15)	6 (3-15)
GIPUZKOA (K. pribatuak)	2 (0-6)	5 (3-10)	7 (4-14)	7 (4-14)	7 (4-14)	7 (4-14)	7 (4-14)	7 (4-14)
GIPUZKOA Etxean	4 (0-7)	6 (3-9)	7 (4-10)	7 (4-10)	7 (4-10)	7 (4-10)	7 (4-10)	7 (4-10)
GIPUZKOA Atzerrian	107 (5-139)	109 (7-142)	110 (8-143)	110 (8-143)	110 (8-143)	110 (8-143)	110 (8-144)	110 (8-143)
ARABA (ospitale publikoak)	2 (2-6)	3 (2-10)	5 (3-12)	5 (3-11)	5 (3-21)	5 (3-11)	5 (3-13)	5 (3-11)
ARABA Etxean	4 (2-6)	6 (4-8)	8 (5-10)	8 (5-10)	8 (5-10)	8 (5-10)	8 (5-10)	8 (5-10)

2.8.BERRESPENA

11. taulan, bizi-egunak zerrendatzen dira kasua atzeman eta berretsi den unean, jatorrizko oinarritzko eremuaren arabera.

11. taula. Oinarritzko eremuetan detektatutako kasuen erantzun-denborak, bizi-egunetan.

GAIXOTASUNA	KASUAK	Arloa Oinarria	1. emaitza	Berrespena
SORTZETIKO HIPOTIROIDISMO PRIMARIO IRAUNKORRA	1	Araba	7	-
	2	Basurtu	4	8
	9		9	11
	1	Gipuzkoa	7	9
	Guztira: 4			
FIBROSI KISTIKO KLASIKOA	1	Araba	7	15
	Guztira: 1			
HIPERFENILALANINEMIA IRAUNKORRA-PKU KLASIKOA	1	Gipuzkoa	5	8
	Guztira: 1			
MCAD DELA EGIAZTATU DA	2	Gurutzeta	7	9
			7	10
	1	Basurtu	5	12
	Guztira: 3			
ZELULA FALTZIFORMEEN GAIXOTASUNA (FS, FSC)	2	Araba	5	-
			7	-
	1	Basurtu	6	-
	2	Gurutzeta	8	-
		8	-	
	Guztira: 5			
BIOTINIDASA-URRITASUNA	2	Gurutzeta	4	11
			5	11
	Guztira: 2			
	GUZTIRA: 16			

EAEko jaioberrien entzumen-baheketako programa 2020. urtea.

Hautzaroko entzumen-galera osasun-arazo garrantzitsu bat da, hizkuntzaren garapena eta ikasketa baldintzatzen baititu, eta, beraz, kaltetutako haurren garapen emozionalean eta sozialean eragiten du. Jaioberrien eta edoskitzaileen entzumen-galeraren prebalentzia bizirik jaiotako 1.000tik 1,5 eta 6,0 kasutan kalkulatu da (OMEren datuak, entzumen-galeraren mailaren arabera).

Euskadin, haurren gorreriaren detekzio goiztiarraren programa 2003an hasi zen, eta amatasun-eremua duten zentroetan (publikoetan zein pribatuetan) mailaka ezarri zen. Baheketa-proba gisa, otoemisia akustikoak ezarri ziren, eta hainbat fasetan egin ziren, positibo faltsuak saihesteko. 2012. urtean, programa berriz diseinatu zen, eta otoemisia akustiko ebokatuarekin egindako baheketa entzumen potentzial ebokatu automatizatuekin ordezkatu zen; azken hori nazioartean *gold* estandartzat hartuta dago, jaioberriaren entzumen-bide osoa miatzeko aukera ematen baitu.

Entzumen-baheketako programaren barruan baheketako I. fasea sartzen da. Fase hori amatasun-eremua duten zentro publiko eta pribatu guztietan egiten da. Baheketaren I. fasea gaintzen ez duten jaioberriak II. fasera bidaltzen dira, diagnostiko eta jarraipenerako, entzumen-galerako kasuen erreferentzia-zentroetara, Osakidetza lau Unibertsitate Ospitaletako ORL-zerbitzuetara.

I. faseko emaitzak

Euskadiko jaioberrien entzumen-baheketako programak estaldura handia (% 99,86) lortu du I. fasean (ikus taula). 2019ko datuen antzekoak (% 99,99)

Halaber, fase honetan detektatutako mota bateko eta besteko entzumen-galeren (aldebakarrekoa edo aldebiakoa) kasuen ehunekoa % 0,77 izan da (2019an % 0,70).

Taula. I. faseko emaitzak (baheketa). 2020. urtea

	ARABA	BIZKAIA I (Basurtu)	BIZKAIA II (Gurutzeta)	GIPUZKOA	EAE 2020	EAE 2019
Programaren estaldura (%)	99,72	99,94	99,98	99,78	99,86	99,99
Entzumen-test normalak	2.104	3.300	4.112	5.275	14.791	15.570
Entzumen-test normalen %a	99,57	99,55	99,01	99,06	99,23	99,20
Aldebakarreko entzumen-galera duten jaioberriak	5	8	33	34	80	77
Aldebakarreko entzumen-galera duten jaioberrien %a	0,24	0,24	0,79	0,64	0,54	0,50
Aldebiko entzumen-galera duten jaioberriak	4	7	8	16	35	32
Aldebiko entzumen-galera duten jaioberrien %a	0,19	0,21	0,19	0,30	0,23	0,20
I. fasean emaitza anormala duten jaioberriak (%)	0,43	0,45	0,99	0,94	0,77	0,70

Diagnostikoaren II. faseko emaitzak.

Diagnostikoaren II. fasean, 2020an % 99,13ko estaldura lortu zen, 2019ko zifra baino hobea. Kasu batean fase hori ezin izan zen Osakidetzako ospitaleetan egin, gurasoek ez zutelako horretarako baimenik eman. Azkenik, aldebarreko edo aldebiko entzumen-galera zuten 33 kasu detektatu ziren (aztertutako jaioberrien 1.000tik 2,21; ikus 13 taula). 2019an baino zifra handixeagoak (24 kasu eta 1.000tik 1,53).

Taula. II faseko baheketaren emaitzak (diagnostiko). 2020. urtea.

	ARABA	BIZKAIA I (Basurtu)	BIZKAIA II (Gurutzeta)	GIPUZKOA	EAE 2020	EAE 2019
Aztertutako kasuen kopurua, II. Fasea	9	15	40	50	114	106
II. fasea ez da EAEn egin*	0	0	1	0	1	2
Baheketaren estalduraren %a	100,0	100,0	97,56	100,0	99,13	97,25
Entzumen-test normalak	4	9	23	45	81	93
Entzumen-test normalen %a	44,44	60,0	57,5	90,0	71,05	80,62
Aldebarreko entzumen-galera duten kasuen %a	1	2	6	4	13	11
Aldebiko entzumen-galera duten kasuen %a	4	4	11	1	20	13
Hipoakusia II. fasean duten kasuak 1.000 jaioberriko	2,37	1,81	4,09	0,94	2,21	1,53

* Lekualdaketak, exitusak, eta abar.